

IKASTETXEETAN EGINDAKO APLIKAZIOAREN ONDORIOZKO OHARRAK.

ERLEAK.

D EREDUA, 4. MAILA: AZALPENA.

Testuak 474 hitz ditu.

LAGINA: 4 ikastetxe, 6 ikasgela, 108 ikasle.

Testua: Azalpenezko testua da. Testuak irudiak ditu. Hitzen bat zaila egin ahal zitzaien. Hamar galdera egin ziren, horietatik 3k berariazko informazioa bilatzea zuten helburu; 3k, testua bere osotasunean ulertzea; 2k, interpretazio bat garatzea; eta 2k, testuaren edukiaren edo formaren gaineko hausnarketa egitea.

Emaitza: Batez besteko puntuazioa **7,42** izan zen.

Galdera bakoitzean erantzun egokia eman zuten ikasleen ehunekoa:

G1	G2	G3	G4	G5	G6	G7	G8	G9	G10
83,33	77,56	63,57	57,22	91,13	60,10	80,22	55,32	86,71	65,09

Zuzenketak: Izenburua gehiago markatzea erabaki zen. Irudi nagusiari "grafikoa" izenburua jarri zitzaion. Eztiaren paragrafoan horri zegokion guztia bildu zen. Erantzunen formatua batu egin zen. Azkenik, 2 hitzen Hiztegia erantsi zen.

Ondorioak:

Aplikazioa egin ondoren, probak 10 galdera horiekin mantentzea erabaki zen.

Galdera horiek hurrengo trebetasun hauei dagozkie:

1T (informazioa bilatzea)	G1, G2, G4
2T (testua bere osotasunean ulertzea)	G5, G7, G9
3T (interpretazio bat garatzea)	G3, G6
4T (edukiaren edo formaren gaineko hausnarketa)	G8, G10

Puntuatu nahi izanez gero, galdera bakoitzaren balorazioa honakoa izatea proposatu zen:

G1	G2	G3	G4	G5	G6	G7	G8	G9	G10
1	1	1	1	1	1,5	1	0,5	1	1

Gutxienezko puntuazioa: **6**

Puntuazio horretatik behera irakurriaren ulermena ez da ontzat joko.

Aztertu egin beharko da zein galderatan egiten duen hutsa eta zein trebetasun diren landu behar direnak.